

**ERABAKIA, 2022ko MARTZOAREN 18koa, UPV/EHUko IKERKETAREN
ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHUn IKERTZAILEAK
PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2021 (IV. MODALITATEA)
BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2021eko maiatzaren 7an, UPV/EHUN ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia 2021(III. Modalitatea).

Eskaeren ebaluazio izapideak bukatu ondoren, IGBBk adostu zuen errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Gero, izangaiek hamar eguneko epea izan zuten egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko.

Izapide hori bukatu ondoren, ERABAKI DA errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin betiko zerrenda.

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena.

Bigarrena.- 2022ko martxoaren 19tik 24ra bitarteko epea irekitzea, hautatutako pertsonen Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten deialdiko 11. oinarrian eskatutako agiriak, betiere II. eranskinean jasotako jarraibideen arabera. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da laguntzari uko egiten zaiola.

Hirugarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

Laugarrena.- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2022ko martxoaren 18an.

INMACULADA AROSTEGUI MADARIAGA
Ikerketaren arloko errektoreordea
Vicerrectora de Investigación

UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDEIA (2021)

IV. MODALITATEA

Emandako eta ukatutako eskaeren behin betiko ebazpena

I. ERANSKINA

NAN	KODEA	TXANDA	Ebaluazio irizpidea batez-besteko nota haztatua	Irizpidea ebaluazio-txostena	Ebaluazio irizpidea hizkuntza ez ofizialak	PUNTUAZIOA GUZTIRA IV. MOD	BEHIN BETIKO EBAZPENA
1718831819	PIFPAU21/02	GRAL	14,96184497	32,6	8	55,56184497	EMANDAKOA
72834380G	PIFPAU21/03	GRAL	8,899432864	28	0	36,89943286	EMANDAKOA
21AK44821	PIFPAU21/01	GRAL	10,76544664	24,25	0	35,01544664	EMANDAKOA
AT844959	PIFPAU21/04	GRAL					BAZTERTUTA

II. ERANSKINA

UPV/EHUn AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunek honako dokumentazio hau bidali beharko dute rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikora, pdf formatuan, **2022ko martxoaren 19etik 24ra bitarteko epean:**

- a. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendari kideek eta adskripzioari dagokion sail, institutu zein ikastegiko zuzendariak onztat emana.
- b. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- c. Zinpeko aitortpena, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- d. Zereginetan hasi izanaren ziurtagiria.
- e. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.
- f. Doktorego programara sarbidea ematen du(t)en titulua(k) (gradua, masterra, lizentziatura).

Gainera, dokumentazioa UPV/EHUn Erregistro Orokorraren bidez (esteka honetan kontsultatu daitezke UPV/EHUn erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra_ordutegia), UPV/EHUn Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez edo, hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduetako batean bidali beharko dute. Erregistro elektronikoa erabiliz gero (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), "Nora" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketaren Giza baliabideen Kudeaketa (U02000381)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "PIF Burdeos 2021".

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko egiten zaiola.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("**Dokumentuak**" izeneko erlaitza).

Dokumentazioa aurkezteari eta kontratazio prozesuari buruzko kontsultak rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikora bidali behar dira.